



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2012ko IRAILAREN 4an EGINDAKO OHIKO  
BILKURAREN AKTA**

2012ko irailaren 4an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Ainara Sarasola Arsuaga  
Uxue Etxebeste Eizagirre

Bere ezin etorria azaltzen du: Koldobika Jauregi Zinkunegi.

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**  
2012ko uztailaren 24an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Jai batzordeak aurkeztutako egitarauari on iritzia ematea, hala bada.**
5. **Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2012ko 1. Eta 2. Hiruhilabeteari dagokion ekarpenak burutzea, hala bada.**
6. **S.U. izenean I.B. jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
7. **Beste batzuk.**
8. **Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

### **LEHENENGO PUNTUA** **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2012ko uztailaren 24ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletzeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

18/2012 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 25ekoa, Alkizako Udaleko Alkateordea den Koldobika Jauregi Zinkunegi zinegotziari Alkate moduan dituen funtzio eta atribuzio guztiak eskuordetzea, ebazten duena.

19/2012 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 30ekoa, J.I.U. Jaunak eginiko eskaera onestu, SS-6171-AB ibilgailuari dagokion trakzio mekanikodun zergaren itzulera onestea, ibilgailuari behin-betiko baja eman zaionez, ebazten duena.

20/2012 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 30ekoa, J.M.I. jaunari 127,50 eurotako diru kopurua bueltatzea, SS-15684-VE Lanborghini markako traktorea udal zergatik salbuetsia dagoelako, ebazten duena.

21/2012 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 29koa, Faktura txikien zerrenda onestea eta ordainketa burutu dadila agintzea, guztira 1.466,07 euro direlarik, ebazten duena.

22/2012 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 30ekoa, Alkizako Udaleko 2012 urteko lehenengo sei hilabeteko uraren tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

23/2012 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 30ekoa, A.D.P. jaunari Alkizako jaietan goxoki eta jostailu postu bat jartzeko baimena ematea, ebazten duena.

24/2012 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 30ekoa, L.F.E. jaunari Alkizako jaietan txurreri postu bat jartzeko baimena ematea, ebazten duena.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

25/2012 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 30ekoa, M.A.D. jaunari Alkizako jaietan tiro pitxon eta ohi elastiko postuak jartzeko baimena ematea, ebazten duena.

**HIRUGARREN PUNTUA**  
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- ANTZA	390,58€
- GAS NATURAL FENOSA	854,53€
- REPSOL	238,23€
- M.URANGA,S.L	297,71€
- M.URANGA,S.L	719,09€
- M.URANGA,S.L	39,94€
- M.URANGA,S.L	110,68€
- IZADI	4.579,24€
- ENEKO ITURBE	164,80€
- BERRI LANTEGIA	120,58€
- GAS NATURAL FENOSA	402,03€
- GAS NATURAL FENOSA	181,27€
- GAS NATURAL FENOSA	130,98€
- GAS NATURAL FENOSA	145,80€
- GAS NATURAL FENOSA	217,91€
- GAS NATURAL FENOSA	157,39€
- GAS NATURAL FENOSA	302,62€
- GAS NATURAL FENOSA	126,73€
- ALKIZAKO HERRI OSTATUA	442,00€
- SOS FIRE	336,30€
- J.M. ARROSPIDE	4.153,52€
- ADARRA	281,31€
- ARGITU ASESORES	148,74€
-IZADI LABORATEGIA	2.882,74€
- IZFE	384,11€
-IZFE	1.629,07€
- REPSOL	154,78€
- GAS NATURAL FENOSA	437,95€
- BERRI LANTEGIA	575,50€
- DIMARPE,S.L	137,41€
- MIGUEL MARI JAUREGI BELOKI	351,00€
- TOLOSALDEA GARATZEN	240,00€
- GAS NATURAL FENOSA	179,21€



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **21.513,75** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

**LAUGARREN PUNTUA**

**JAI BATZORDEAK AURKEZTUTAKO EGITARAUARI ON IRITZIA EMATEA, HALA BADA**

Ikusirik Jai batzordeak aurkeztu duela Alkizako 2012 urteko jaien egitaraua.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Jai batzordeak aurkeztutako Alkizako 2012 urteko jaien egitarauari on iritzia ematea.

**BOSTGARREN PUNTUA**

**AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2012ko 1. ETA 2. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkeztutako idatzia, non Alkizako Udalak 2012 ekitaldirako 1. eta 2. hiruhilabeteari dagokion ekarpena burutu dezan eskaera egiten duen, sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 15.000 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2012 urteko udal aurrekontu orokorrean kreditu nahikoa aurreikustea.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA.- 15.000,00 eurotako gastua onestea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **S.U. IZENEAN I.B. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik S.U. jaunaren izenean I.B. jaunak eginiko eskera, non azaltzen duen 2012ko apirilaren 24an Alkizako Udalak, Haitz Mendi Goikoa baserriaren fatxada-baoen aldaketak egiteko baimenaren luzapena eman ziola.

Ikusirik obrak abenduan hasiko dituela, obrak egiteko baimenaren luzapena eskatzen du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: S.U. izenean I.B. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, Alkizako Haitz Mendi Goikoa baserriaren fatxada-baoen aldaketak egiteko baimena, 6 hilabetez luzatzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

*Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.*

#### **7.1. ALKIZAKO HERRI ESKOLAKO KOMUNITATEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA**

Ikusirik Alkizako Eskolako Komunitateak eginiko eskaera, non ondorengoa dioen:

*“Udal agurgarri hori:*

*Idatzi honen bidez eta ikasturtea hastera doanez, premiazko moldaketa lanak egiteko beharra daudela esatera gatozkizue:*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

1.-Goiko solairuko hormek saneamenduaren –pintura, hezetasunaren kontrako tratamendua-premia dute. Izan ere, ipar aldera ematen duen paretako hezetasuna dela eta, pintura ateratzez gain, filtrazioa ere, aspalditik antzematen da.

2.Goiko leihoetan ere errebisio bat egitea komeni da, neguko haizeteekin eta zaparradekin ireki egiten baitira. Era berean, putzuak eta bestelako kalteak sortzen dira.

3.Eskola atariko horma (marrazkiak dauden lekuan) base txuriz pintatzea eskatzen dizuegu. Izan ere, ikasturte honetan marrazkia berritzeko asmoa dugu.

Lantxo hauek egitea nahiko presazkoak iruditzen zaizkigunez, zuengana zuzentzen gara laguntza eske. Besterik gabe, zuen berrien zain gelditzen gara. Aldez aurretik mila esker!

*Eskolako Komunitatea*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA.- Eskolako Komunitateari jakinarazi, Alkizako Udalak, Alkizako Herri Eskolan egin behar diren lanak burutzeko diru-laguntza eskaera egin duela, 2012ko uztailaren 4ko agindua, Unibertsitate eta ikerketako sailburuaren babesean. Honen bidez, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dituzten udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantziakoa arautzen den (Udalaguntza-2012). Beraz, diru-laguntzaren ebazpena jasotzean aipaturiko lanak egingo dira. Atariko hormari buruz, herriko jaiak bukatzean egingo dela jakinazten da.

Bide batez, Alkizako Udalak eskatzen du, Herriko eskolan argiak gau osoan piztuta gelditu ez daitezen, ardurarekin jokatzera.

## **7.2. ALKIZAKO HERRI ESKOLAKO KOMUNITATEAREN EKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Eskolako Komunitateak eginiko eskaera, non ondorengoa dioen:

*“Udal agurgarri hori:*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*1. Idatzi honen bidez eta ikasturtea hastera doanez, eskolan dugun lekuaren premia dela eta, eskaera hau luzatu nahi dizuegu:*

*Jakinik herriko liburutegiko ikasgelako baldintzak oso aproposak direla gure ikasleekin lanean aritzeko, eta kontutan hartuta eskolako arlo batzuk lantzeko leku faltan gaudela, ondoren aipatzen dizuegun ordu jakin hauetan, gela honen erabilpenerako baimena eskatzen dizuegu:*

*Astelehena: 11.30-12.30; 14.30-15.30*

*Asteartea: 11.30-12.30*

*Osteguna: 10.00-11.00; 11.30-12.30*

*Ostirala: 10.00-11.00; 11.30-12.30*

*Ikasleen garapen egoki eta pedagogiko baterako, bikoizketak zein lekuen banaketak era horretan egitea ezinbestekoa zaigu. Ikasturtea hasi aurretik ordutegi hauek zehaztea eta liburutegia erabiltzeko zuen baimena izatea espero dugu.*

*Besterik gabe, laster arte!*

*Eskolako komunitatea”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Eskolako komunitateak eginiko eskaera onestea, betiere jakinik liburutegiaren erabilpena behin-behinekoa izango dela, hau da, gelaren arazoa konpondu bitartean.

BIGARRENA: Alkizako Eskolako komunitateari jakinarazi, liburutegian KZ gunea dagoela, eta ezin izango dutela erabili. Arduratsu ibili beharko dutela eta sartu aurretik dagoen moduan utzi beharko dutela.

#### **SEIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Jose Mari Aranzabe zinegotziak jakitera ematen die batzarkideei, Alkizako Eskolako irakasleak, bertan leku falta dutenez, Don Juanenako sukaldea eta ondoan dagoen gela erabiltzeko baimena eskatu diela. Gaiaz hitzegin ondoren arazorik ez dela egongo azaltzen dute batzarkideek, baina eskaera idatziz egiteko esango zaiela, idatziz jaso dezaten erantzuna.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.25 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*